

ERDULDUNAK NOLA EUSKALDUNDU (4)

“Eraman egiten gaitu uholdearen indar itsuak”

“Catalunyan inmigranteek katalanera ikasten dute”



Juan Antonio Letamendia euskaldun berria da. Benetakoa. Erdalduna zalarik euskaldun egin da.

Egokiena berari galdetzea zan ea zer egin behar ote litzaken Euskalerrian erruz dugun erdaldun jende hori integratzeko osoki.

Letamendia idazle trebea dugu, gainera. Sari bat baino gehiago irabazi du.

Letamendiaren erantzunak esperientziaren pixua dute.

ageriko bilinguismo baten bila joan. Bitartean eguraldi onari besoak tolestaturik itxoitea heriotza bailitzake, herri-elkarteak hortara polarizatu behar dira: ikastolak, alfabetatze kanpaina, erdaldun eta inmigranteen arteko lan berexia... Hasiak dauden bideak azkartu egin behar dira, sakondu, zuzendu eta berritu.

—Zergatik dala uste duzu «euskotar» asko eta euskaldun gutxi izate?

—Catalunyan inmigranteek katalanera ikasten dute. Hizkuntzaz ere katalan egiten dira. Erraza baida! Euskera ez da hainbeste. Euskera ikasteak gaurko egunez sakrifizio batzuek eskatzen ditu. Inkonformismo handia behar da.

Ez, ordae, mihinazko inkorformismoa, burukoa eta bihotzekoa baik. Euskaldun berrien artean ineksta bat egin ahal bageneza pondu hau biziki nabarmen agertuko litzake. Euskalzaletasunaren termometro zehatza euskalduntzeko ahalegi-

na da. Hizkuntza absolutu bat ez dela ba dakit (eta Sarita Montiel eta Einsteinen relativitate gaia bera ez direla ere bai!). Baina hortan gogor entseatzan ez diran «euskotarren» euskalzaletasunean fitsik ez dut sinesten. Gezurra ta konplimendu besterik ez da! Egina du batkotzak bere balioen jerarkia!

—Prensa, irriati eta telebistari ez dugula ikusirik ez ote gera esperantza ustel batean bizi, minori baten artifazkerian?

—Zer da artifazial eta zer jatorra? Hondoan instituzio problema da. Ofizialtasuna izan edo ez izan. Funtsean politika hauzia. Ez dago besterik.

—Ondo dago alfabetatzea, baina hau?


—Egia esan alfabetatzearen lehengo planak ez nau erabat betetzen. Oraingoa ez dakit zertan gelditu den. Nik-neuk lehen mailan beste euskalkien zatiak kendu egingo nituzke. Bide luzeegia derizkiot alfabetatzeko. Lehen maila batean euskera batua sartuko nuke soil-soilik. Hondoraino irents ezazu Arantzazu ondorengo materiala. Eta batez ere ortografia eta hiztegi bateratua. Bizkaian behar bada bertako euskalkia eman diteke aurretik... Hau lortuz gero nahiko alfabetatze litzake jHortarako gaurko idazle onenen zatiak argitaratu be-

har: lirake ahalik eta laisterren. Aita Altunak lan hortantxe diarduela uste dut. Autore zaharrak ezagutze ere beharrezkoa dugu, baina hau bigarren maila batean, agian, eta hauen ortografia pitin bat orratuta eta oharrekin. Alfabetatzearen zuzendari-gaizentzat etsamina zorrotz bat eskatuko nuke! Esan gabe doa material guzi hau inprentaz behar dela.

—Eta erdaldunak euskalduntzeko?

—Lehenik sikolojia lana behar dugu. Ondo sartu buruan ikastearen premia, eta bigarren hortara jarriz gero beste edozein hizkuntza bezala ikasten ahal dela. Pedagogiaz hasieran inportantzia gutxi emango nioke lexikuari. Herri arruntak derabilena eta kito. Nik-neuk behintzat garai batean denbora ederra galdu nuen hitz bitxiak ikasten. Gero sekula erabili ez ditudan hitzak! Horren konplexuz eta iziduraz, eta subordinada xoil bat uztartzen ez jakiteagatik euskaldun asko eta asko ez da hizketan ausartzen. Aditza dela-eta beste horrenbeste esango nuke. Dezagun lehendabizi hizkuntzaren hezurra eta ondoren melenak eta patillak. Ikasiak diren erdalduntzat gramatika bat da onena, erraza baina gramatika. Beste metodoak biziki politak dira baina arras luze egiten dute bide.

JOAN MARI TORREALDAY



Ikusi nizunez, lehengoaren eta oraingo egoeraren proportzioa egina duzu: zenbat erdaldun, zenbat euskaldun.

—Patxi Nobliak esaten duenez duela ehun urte (1870) 700.000 lagunetatik 650.000 euskaldunak ziren, gehienak beraz. 1960-garrenean, aldiz, 2.000.000 izaki 550.000 bakarrik euskaldun. Lumeroa berez, berdintsu izanagaitik ere proportzioa arras ezberdina dugu... Integrazioaz mintzatu ohi gera. Hizkuntzaz zeinek zein behar du integratu?

—Martxa hontan nora goazela uste duzu?

—Joan inora ez goaz. Eraman egiten gaitu uholdearen indar itsuak. Haatik, nik sinetsi egiten dut gizonen mirarietan. Nahi izanez gero obratuko dugu gure pizkunde, eta hortan ez gera lehenak izango. Hauzia nahi izatea da. Baina nahi eraginkor eta efikaz batekin.

—Martxa honi frenu eta erreme-

dio bat jartzeko zer egin behar litzake?

—Herriari gagozkiola bi alderdi ditugu hemen. Lehenik herria nola gosetu ikusi behar dugu, eta bigarren nola jaten eman. Lehenbizikoak propaganda ta dibulgazio lana eskatzen du. Konsumo ta kompetenziaren gizarite hontan beste biderik ez baidago. Herriak akulu baten beharra dauka, zati handi batez proletario izanik ere bere egarrietan aburgesatuta baidago. Bere izatea deskubritu arazi behar zaio. Hortarako talde bat konprometitu behar da itzartze lan hortan. Gaiak eta planteamenduak honelakoak litzake: «Herrietasuna ta hizkuntza», «Langile kultura zer den», «Gizon euskalduna historiaren hildoan», «Hizkuntza dialektika indarra bezala», eta beste... Propaganda ekintza hontan artistek, kantariak eta pintoreek, zeregin handia lukete. Bigarren ponduan, nola euskaldundu alegia, ahal ditezkeen bide guziak agortu behar dira. Legetik azken tantaraino xurgatu behar da, eta



Alfabetatze-saioak asi ziranean auxe zan bear-bearrezkoena: maixu talde bat gertutzea. Ortarako ikasaldi batzuek egin ziran eta emen ditugu ikasaldi oietan parte artu zutenak.